

Webgune honek cookie-ak erabiltzen ditu zure nabigazioa errazteko, publikitatea erakusteko eta analisi estatistikoak egiteko. Nabigatzen jarraitzen baduzu, hauen erabilera onartzen duzula ulertuko dugu. Informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu [Cookie Politika](#). [Onartu](#)

Nork: [Imanol Saiz](#) - Api 29, 2017

[GALERIA] MILAKA TXOTX ERRETERIA-ORERETAKO ZUMARDIAN



Zumardia jendez gainezka, arratsaldeko 18:00etako txotx ofizialerako.

XXIX. Sagardo Eguna oraindik ez da amaitu. Goizeko dastaketa egin ostean, indarrez josirik atera dira arratsaldean Erretereria-Orereta eta gertuko bizilagunak, 18:00etan egin duten txotx ofiziala ez galtzeko. Zumardia jendez gainezka, Sagardo Egunaren bigarren txanpari aurre egiteko.

Aurtengo Sagardo Egunaren txotx ofizialari hasiera eman aurretik, txalaparta saioa izan da. Ondoren, Euskal Herriko txapeldun izandako Maria Jesusek irrintzia bota du. Txalapartariak eta Maria Jesusek lore sorta bana jaso dute, emandako laguntza eskertuz. Hiruek eman diote aurtengo sagardo festari ongi etorria, txotx eta topa artean. Peio Urreaga ere bertan izan da, aurkezle lanetan, arratsaldeko festa girotzen. Txalo zaparrada artean hasi dute Zumardian eguneko bigarren dastaketa.

Musika, dantza, janaria eta sagardoa, nola ez, barra-barra. Arratsaldeko 20:00ak bitarte eguna luzatuko dute sagardo zaleek, lehenago sagardoa bukatzen ez bada, noski. Eguraldia lagun izan duten festa paregabea bizitu dute gaurkoan Erretereria-Oreretara gerturatu diren guztiak. Goizeko Gorenak markako sagardo dastaketa ondoren, bigarren aldiz edalontzia hartu, zapia berriro lepoan ondo ipini eta txotx egitera jendetza joan da Zumardira. Ehunka lagun —milaka ez badira— elkartu dira arratsaldean, hogeita zortzi postuetako sagardo zukua dastatzeko asmoz. Arratsaldeko dastaketan Gipuzkoako Sagardo Egileen Elkartearen dauden sagardotegiak hartu dute parte. Erretereriarrez gain, gertuko herrietako jende mordoia hurbildu da eztarria freskatzera.

Giro polita izan da gaurko egunean Erretereria-Oreretan. Urtero Sagardo Eguneko antolakuntza taldean lanean aritzen den Jon Gaztelumendiren hitzetan "oso ondo" joan da eguna. Zituzten espektatibak bete direla uste du, "primeran" atera den Sagardo Egunerako. Goiz eta arratsaldean zehar "jende asko" gerturatu dela nabarmendu du.

Eguraldia lagun, edalontzia eskuetan, zapia lepoan eta irribarre batekin atera dira herriko kaleetara aurtengo sagar uztaz gozatzeko. 20:00etan postuak itxi arren, goizeko ordu txikieta luzatu daiteke gaurko festa. Jada asko, datorren urteko XXX. Sagardo Eguna dute buruan.



HERRI URRATSERA JOATEKO AUTOBUSA ANTOLATU DU ORERETA IKASTOLAK

LOTUTAKOAK

ETIKETAK

ATALA

EGILEA



Hiru greba egun gehiago egingo dituzte ...

Nork: [erik gartzia](#) - maiatza 10, 2017

■ [Ekonomia](#)



35 jardueratik gora udaz osasuntsu gozat ...

Nork: [ikerne zarate](#) - maiatza 9, 2017

■ [Erretereria-Orereta](#)



Lau mendeko harremana ofizialdu dute

Nork: [erik gartzia](#) - maiatza 8, 2017

■ [Gizartea](#)



[Galeria] Milaka lagun mende erdiaren er ...

Nork: [Imanol Saiz](#) - maiatza 8, 2017

■ [Gizartea](#)

Albiste irakurrienak



[GALERIA] DENBORALDIA BUKATZEKO EGUN BOROBILO



[BIDEOA] AMNISTIAREN ALDEKO ASTEAN HILDAKOAK GOGOAN




GAUR SAGARDOA SAGARDOEGUNA TXOTX



IMANOL SAIZ

Ez dago ekarpenik

EGIN IRUZKIN BAT



Izena *

Email *

Website



CAPTCHA Code *

BIDALI IRUZKINA

[Cookie Politika](#) | [Pribatutasun Politika](#) | [Lege Oharra](#)

© Oartzualdeko Hedabideak S.L. • Santa Klara kalea, 22, Errenteria-Orereta 20100 - Tel.: 943-34 03 30 - E-posta: oarsobidasoa@hitza.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Foruaren eta Foruaren arteko erlazioa
Gipuzkoako Foruaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean

WEBGUNE HONEK BAT EGITEN DU [CREATIVE COMMONS](#) ERABILERA LIZENTZIAREKIN.

